

128.16. Behiak lasaigarri



50 €

-

1

+

Gehitu saskira

Bi lagunentzako esperientzia honek 90 minutu irauten du eta goizeko 9:30ean egiten da egunero Gordexolako Xarene baserrian. Egin erreserba online edo, nahiago baduzu, deitu zuzenean gurekin hitz egiteko.

Harremanetarako:

Telefonoak: 94325149, 65478412

Helbide elektronikoa: xarene@baserriak.eus

Helbidea: Agarre bidea 75, Gordexola (Bizkaia)

Laztandu behiak: etzan gure behi otzan baten altzoan, eta utziozu zure gorputza biltzen eta goxatzen. Sentitu zure arnasketa haren hatsaren erritmora moteltzen eta egin naturarekin bat behiaren azal lasaigarria laztandu bitartean.

Eskuilatu behiak: harreman ororen oinarria afektua da, eta berdin gertatzen da gizakiaren eta behiaren artean. Horregatik orrazten diegu ilea egunero: eguna argitsua izan ala euria egin. Etorri eta animatu ekintza lasaigarri honetan parte hartzera.

Paseatu behiekin: Egin lagun gure behiei larre zabal eta luzeetan egin ohi dituzten paseoetan. Ba al da modu hobirik egunerokotasunak dakarren estresa ahazteko?

Luzatu esperientzia eta hartu ostatu Xareneren lursailetan egokitutako luxuzko espazioan. Bi esperientziak batera hartuz gero, % 20ko deskontua izango duzu. Ikusi Eco Glamping eskaintza [hemen](#).